# 36.<

# MUSIKEGUNAK

Oñati - 2014





# OÑATI

## A. Ibarrondoren mendeurrena

(1914-1985)

## SANTA ANA ANTZOKIAN

19:00 etan

Azaroak 9

Ensemble Sinkro

## SAN MIGEL PARROKIAN

19:00 etan

Azaroak 16

Bilboko Banda

Azaroak 23

Ganbara Abesbatza; Oñatiko Abesbatza; Parrokiko Abesbatzak; Udal Txistulariak; Udal Musika banda

## Santa Ana Antzokian

azaroak 9, 19:00etan

### EGITARAUA – PROGRAMA

F. Ibarrondo ..................................... Aitaren Etxea (1971)
(1943-        )  para tenor, 2 pianos, violín y percusión

Vent d'exile (2011)
para piano. Estreno absoluto

Psaume XII (1969)
para barítono y piano

Fluxus (1974)
para flauta y piano

Izargui (2006-2007)
para dos pianos y percusión

### ENSEMBLE SINKRO

**Alberto Nuñez**, Tenorea
**Fernando Latorre**, Barítonoa
**Roberto Casado**, Flauta
**Victor Parra**, Biolina
**Alfonso Gómez**, Pianoa
**Sergio Gutiérrez**, Pianoa
**Olaia Montoya**, Perkusioa
**Jabi Alonso**, Perkusioa
**Alfonso G. de la Torre**, Zuzendari artistikoa

## ENSEMBLE SINKRO

ENSEMBLE SINKRO taldeak proiektu berritzaileak aurkeztu ditu eta obra garaikide asko estreinatu ditu, soinua eta irudia espazio akustikoan nahiz eszenikoan integratzeari garrantzi berezia emanez .

Talde horren helburu garrantzitsuenetariko bat da konpositore nahiz interpretatzaileen lana islatzea kontzertu bakoitzerako bereziki asmatutako proposamenetan.

Ensemble Sinkrok kontzertu eta jaialdi askotan parte hartu du, proiektu ugarirekin. Eskaintzen dituzten ikuskizun askotan molde propio batez nahasten dituzte instrumentuak, argi eta soinu elementuak, inprobisazioa, dantza, bideoa eta antzerkia.

Gaur egun, taldeak esparru propioa du Carmelo Bernaola Nazioarteko Musika Jaialdian eta Musika Elektroakustikaren Sinkro Jaialdian. Esparru horretan ari da lanean obra berriak sortuz eta hedatuz, beti ere errepertorio garaikidean sartzeko.

Beren proiektuak dokumentatzeko, CD bildumak argitaratzen dituzte Sinkro Records izeneko zigilu diskografiko propioaren bidez.

## ENSEMBLE SINKRO

ENSEMBLE SINKRO ha presentado proyectos innovadores, estrenando numerosas obras contemporáneas, prestando especial relevancia a la integración de sonido e imagen, al espacio acústico y escénico.

Uno sus objetivos fundamentales es que el trabajo realizado por compositores e intérpretes se vea reflejado en propuestas especialmente concebidas para cada concierto.

Ensemble Sinkro se ha presentado en distintos ciclos de conciertos y festivales, con numerosos proyectos. Muchos de sus espectáculos encierran una mixtura de obras instrumentales, electroacústica, improvisación, danza, video y teatro.

Actualmente es grupo residente del Festival Internacional de Música Carmelo Bernaola y del Festival Sinkro de Música Eletroacústica. En este ámbito trabaja en la creación y difusión de nuevas obras con el objetivo de incorporarlas al repertorio contemporáneo.

Documenta sus proyectos publicando una colección de CDs con su propio sello discográfico Sinkro Records.

## San Migel Parrokian

azaroak 16, 19:00etan

### EGITARAUA – PROGRAMA

| | |
|---|---|
| A. Ibarrondo .................................... <br>(1914-1985 | Lazos de Lealtad<br>Marcha - Pasodoble |
| A. Ibarrondo .................................... | Ibar Aldian<br>Obertura |
| A. Ibarrondo .................................... | S.E.E.I.<br>Marcha |
| G. Rossini ........................................ <br>(1792-1868) | Tancredi<br>Obertura |
| A. Ibarrondo .................................... | Oñate<br>Zortziko |
| A. Ibarrondo .................................... | Baskaldurikan-Bapo<br>Aires vascos nº3 |
| A. Ibarrondo .................................... | Aloña-Mendi |

BILBOKO MUSIKA BANDA

**Zuzendaria,** Iñaki Urkizu

## Banda

1895eko ekainaren 9an, José Sainz Basaberen zuzendaritzapean, Bilboko Udalaren Musika Bandak bere lehenengo kontzertua eman zuen Areatzan. Harrezkero José Franco Ribate (1924), Jesús Arambarri (1933), Bruno Muñoz (1953), Urbano Ruiz Laorden (1969), Antonino Ibarrondo Oleaga (1979), Jesús María Bilbao Estefanía (1995) eta Rafael Sanz-Espert (2002) izan dira Bandaren zuzendariak

BilbaoMusika Toki Erakunde Autonomiadunaren barruan dago. Aipatzekoak dira bere emankizunak ekitaldi ofizialetan eta ospakizun herrikoietan, eta Areatzako kioskoan udaberrian eskaintzen duen kontzertu zikloa. Azpimarratzekoak dira, era berean, Udazkeneko eta Neguko Zikloak; gaur egun Euskalduna Jauregian egiten dira. Ziklo horietan izen handiko zuzendari gonbidatuak izan ditu,

1995eko apirilean, mendeurrena zela-eta, Bandak CD bikoitza grabatu zuen. Gero, hainbat grabaketak egin ditu, lan horien artean nabarmentzekoa da Oskorri taldearekin batera egindako grabaketa bat, Euskalduna Jauregian zuzenean egindako emanaldiak jasotzen dituzten hiru CD bikoitz, Spanish Brass metal-boskote ospetsuarekin egindako grabaketa bat, Bilboko Koral Elkartearekin egindako grabaketa bat, eta abar. Halaber, azpimarratzekoak dira Valentziako Palau de la Musican, Unió de Llíria Antzokian eta Gasteizko Principal Antzokian emandakoak, Tenerifeko Santa Cruzeko Angel Guimerá Antzokian eskainitakoa, Donostiako Kursaal Antzokian egin zen EITBko gabonetako saio berezian izan zuen partaidetza, Aste Nagusian Abandoibarran, Kepa Junkera, Oskorri eta Sole Jimenezekin emandako kontzertuak, Errenteriako 2010eko Musikaste amaierako kontzertuan Andra Mari Koralarekin izandako partaidetza, eta Tenerifen, banda sinfonikoen zuzendarien, konpositoreen, moldatzaileen eta instrumentisten IV. Biltzar Iberoamerikarrean izandako partaidetza

## La Banda

El 9 de junio de 1895 bajo la dirección de José Sáinz Basabe, la Banda Municipal de Música de Bilbao ofrecía en el Arenal su primer concierto. Desde entonces, José Franco Ribate (1924), Jesús Arambarri (1933), Bruno Muñoz (1953), Urbano Ruiz Laorden (1969), Antonino Ibarrondo Oleaga (1979), Jesús María Bilbao Estefanía (1995) y Rafael Sanz-Espert (2002) han sido sus Directores

Integrada en el Organismo Autónomo Local BilbaoMusika, son tradicionales sus intervenciones en actos oficiales y celebraciones populares, así como su ciclo de conciertos de primavera en el Quiosco del Arenal. A destacar asimismo, la temporada de conciertos de otoño - invierno que se realizan en el auditorio del Palacio Euskalduna, donde la Banda ha actuado bajo la batuta de directores invitados de reconocido prestigio.

En abril de 1995, con motivo de su centenario, la Banda grabó un doble CD, posteriormente diversas grabaciones entre las que destacan la realizada conjuntamente con el grupo Oskorri,  tres dobles CDs que recogen actuaciones en directo en el Palacio Euskalduna, una grabación con el prestigioso quinteto de metales Spanish Brass, una grabación con la Sociedad Coral de Bilbao, etc. Asimismo, destacan los conciertos realizados en el Palau de la Música de Valencia, en el Teatro de la Unió de Llíria, en el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz, en el Teatro Angel Guimerá de Santa Cruz de Tenerife, su participación en el programa especial de Navidad de EITB en el Kursaal donostiarra, sus Conciertos en Abandoibarra con motivo de la Aste Nagusia junto a Kepa Junkera, Oskorri y Sole Jiménez, su intervención en la clausura de Musikaste 2010 de Renteria junto a la Coral Andra Mari, así como su participación en el IV Congreso Iberoamericano de directores, compositores, arreglistas e instrumentistas de Bandas Sinfónicas celebrado en Tenerife.

## San Migel Parrokian

azaroak 23, 19:00etan

## Antonino Ibarrondo gogoan
## (1914-1985)

### EGITARAUA – PROGRAMA

Alborada de Segura ............................ Anónimo
(Bandarako konp. Antonino Ibarrondo)

Korputzetako Arku Dantza ............... Obertura Vasca

Horizontes de Gloria .......................... Martxa

Txanton Enea ........................................ Concierto para Bombardino

*OÑATIKO MUSIKA BANDA*

Bere Aldian ............................................ Fandangoa

Nik Ezdakit ............................................. Arn Arina

*OÑATIKO MUSIKA BANDA ETA TXISTULARIAK*

Oñati ....................................................... Zortzikoa

En una tarde Mayo ............................. Habanera

Aloña Mendi .......................................... Himnoa

*OÑATIKO MUSIKA BANDA ETA ABESBATZAK*

## Oñatiko Musika taldeak Antonino Ibarrondori Omenaldia

Antonino Ibarrondoren jaiotzaren mendeurrena dela-ta, azpian aipatutako Oñatiko musika taldeak Antoninoren musikaz elkarrekin CD bat grabatzeko bildu ziren. Talde bakoitzak bere ibilbide propioa duen arren, Gabonetako giroa aprobetxatuz, gabon-kantez osatutako emanaldi haundi bat egiten dute urtero Parrokiko Eliza nagusian. Oraingoan berriro bildu dira, eta Antoninori gorazarre eginez, CDan grabatutako piezak eskainiko dizkigute.

**Oñatiko Banda Munizipala.** Zuzendaria: Iñaxio Ibarrondo
**Parrokiko Gizonezkoen Abesbatza.** Zuzendaria: Iñaxio Ibarrondo
**Parrokiko Emakumeen Abesbatza.** Zuzendaria: Iñaxio Ibarrondo
**Oñati Abesbatza.** Zuzendaria: Loli Ordoki
**Ganbara Abesbatza.** Zuzendaria: Aitor Biain
**Oñatiko Txistulari taldea.** Zuzendaria: Aitor Madina.



# 36. <

## MUSIKEGUNAK

Oñati - 2014

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte

OÑATIKO UDALA